

**Arrakastatsua izan da Housgai proiektua, adinekoak euren etxean zahartzea ahalbideratuko duten arreta-eredu berriak probatu dituen**

- Ahultasun-egoeran dauden adinekoen aurreikuspenetara eta beharretara egokitzen dela erakutsi du Housgai egitasmoak. Autonomia handiagoa eskaintzen die, euren etxean luzaroago eta bizi-kalitate hoberekin bizi daitezten.
- Hainbat jarduerak estreinakoz bat egin dute, eta horretan datza proiektuaren berritasuna: etxebizitza birgaitzea eta egokitzea, laguntza-zerbitzuak –teknologikoak eta ez-teknologikoak– bateratzea, eta hori guztia pertsonarekiko osoko arreta-ereduaren ikuspegitik landuta.
- Ikerketa-proiektua Eusko Jaurlaritzaren Etorgai programaren bidez finantzatu da eta Matia Fundazioa buru izan duen 14 erakunderen arteko partzuergoak hartu du parte bertan. Enpresak, unibertsitateak, teknologia-eta ikerketa-zentroak dira partzuergoko kideak.

*(Donostia, 2013ko irailaren 9a).* Nola bizi nahi dute adinekoek? Esparru horretan egin diren azterketen arabera, gehienek euren etxean eta ohiko ingurunean jarraitu nahi dute bizitzen. Etorgai programaren barruan Eusko Jaurlaritzak finantzatu eta Matia Fundazioa buru izan duen 14 enpresa, unibertsitate, ikerketa eta zentru teknologikoen partzuergoak, Housgai proiektuaren bidez, egitasmoan zehar eskainitako zerbitzu eta jarduera guztiak xehetasunez eta era jarraituan ebaluatu ditu. Proiektuaren fase bat laborategian burutu da, beste bat kontrolatutako etxebizitzetan, eta bukatzeko, benetako etxebizitza batean egin da azken proba-fasea. Horretatik ondorio objektiboak atera dira, egungo egoera sozioekonomikoarekin bat etorriko diren politika publikoak lantzeko gomendioak egiteko erabiliko direnak. Housgairen barruan probatu diren arreta soziosanitarioko eredu berriek euren etxean zahartzeko aukera eskaintzen diete adinekoek; horretarako hainbat alderdi uztartu dira, hala nola, laguntza soziosanitarioari dagozkionak, ingurunea birgaitzea eta egokitzea, eta dagoeneko abian diren zerbitzuak eta beste berri batzuk bateratzea. Diziplina anitzeko ikuspegi hori da proiektuaren berritasun nagusietako bat.



### **Proiektu pilotua: ezaugarriak eta zerbitzuak**

Proiekturako hautatu zuten 75 urteko emakumea etxebizitza pilotuan hasi zen bizitzen, bere etxean zuen abiapuntuko egoera ezagutzeko osoko balorazioa egin ondoren. Gero beste bi balorazio egin dira, bata adinekoa etxebizitza berrira aldatu eta bi aste pasa ondoren, eta hiru hilabetera bestea.

Sestaoko etxebizitza pilotuan burututako esku-hartzeak etxean bertan eta ingurunean egin dira, eraikinera sartzeko zeuden arkitektura-oztopoak kentzetik hasita.

Etxea eraldatu egin da barrutik, mugikortasunari, segurtasunari, kontrolari eta bestelakoei dagokienez askotariko beharrak dituzten adinekoentzat erabiltzeko errazagoa izan dadin.

Oinarri teknologikodun zerbitzuak ditu etxeak, hala nola, parametro fisiologikoak (pisua, tentsioa, glukosa) kontrolatzeko zerbitzua, dieta osasungarriak programatzeko zerbitzua, portaera ohituren segimendua egiteko zerbitzua eta istripuei aurrea hartzeko etxeko zaintza-zerbitzua.

Teknologikoak ez diren zerbitzuen artean nabarmentzekoa da aipatu den osoko balorazioa, izan ere, hori abiapuntutzat hartuta eta adinekoaren gustuen eta nahien arabera adostu baitziren berarekin zein zerbitzu jasoko zituen. Zerbitzu horien artean batzuk berriak dira, esaterako, ohituren segimendua, teknologia berrietan trebatzea, laguntza teknikoa, 24 orduetako laguntza-zerbitzua, etab. Horiekin batera lehendik zeuden zerbitzuak eskaini dira, besteak beste, etxeko laguntzarena.

## **Ebaluatutako eta egiaztatutako onurak**

Etxebizitza berregokitzeari esker, adinekoaren gaitasun funtzionalaren balorazioak hobera egin du Housgai proiektuko etxean bizitzen hasi zenetik. Horrek berresten du sarritan ingurunea bera dela mugatzen eta mendeko bihurtzen gaituena. Era berean, oinarri teknologikodun zerbitzuekiko gogobetetasun maila altua adierazi du pertsona horrek, eta orokorrean, zerbitzuok bere lasaitasuna areagotzen dutela eta bere osasuna eta autonomia sustatzen dutela uste du.

Gainera, adinekoak oso positiboki baloratu du parametro fisiologikoen segimendua, elikadurarena, bere jokabide-ohituren gainekoa eta etxeko segurtasunarena. Segimendu horiek guztiak profesionalen bidez eta zerbitzu teknologikoei esker egin dira. Modu horretan bere osasuna kontrolatuta dagoela deritzo, lasai sentitzen da etxean baldintza onetan dagoelako, eta Housgai proiektuan burutu diren ekintza guztiak uztartzearen ondorioz lehen baino autonomoagoa denez, gutxieneko gainbegiratuarekin etxean luzaro bizitzeko aukera izango du.

Astean bi egunetan etorri zaion laguntzaile pertsonala laguntza garrantzitsua izan da adinekoarentzat, izan ere, lagungarri gertatu zaio zailago zaizkion jardueretan eta bere gaitasunak sustatu ditu, ahalik eta luzaroen eutsi diezaien.

Zaintzaile nagusiari dagokionez, emaitzak oso pozgarriak izan dira. Aurreikuspenak eta beharrak betetzeaz gain, zaintzaile nagusiak, alabak kasu honetan, askoz lasaiago dagoela adierazi du. Gailu teknologikoei esker bere amaren etxeko egoeraren berri jaso dezake eta segurtasun-alarmerik ote dagoen jakin. Gainera, parametro fisiologikoen segimendu medikoa dela eta lasaiago dago bere amaren ongizate fisikoari dagokionez. Ereduaren ondorioz, zaintzagatik alabak zuen gainkarga-indizeak behera egin du; gainkarga maila alturik gainkarga arinaren mailara igaro da.



Azkenik, parte hartu duten osasun-profesionalek gailu teknologikoen erabilera azkar ikasi dela adierazi dute, eta orokorrean, Housgaireren barruan aurrera eramanez diren ekintza guztiak adinekoak zaintzeko moduan lorpen handia izan direla uste dute. Eredu horrek adinekoen osasunean, autonomian eta bizikaltatean duen eragina oso positiboa delakoan daude.

**Informazio gehiago You Tuben:**

Euskera [http://www.youtube.com/watch?v=2L7GkqO\\_r7s](http://www.youtube.com/watch?v=2L7GkqO_r7s)

**Proiektuan parte hartu dutenak:**

**Lidergoa:**

Matia Fundazioa

**Enpresak:**

Sukia, Tesa, Logos, Sellex, Teusa, Fagor electrodomésticos, Euskaltel, Ibermática, Ikusi, Andago, Etxekide, Aurrerantz, Matia innova

**Ikerketa zentroak:**

Tecnalia, UPV/EHU Facultad de Arquitectura, CEIT IK4, Ikerlan IK4, Mondragon Unibertsitatea, Tekniker IK4, i3B, Matia instituto gerontológico.

**Beste laguntzaileak:**

Ayuntamiento de Sestao - Sestao Berri, Fagor Grupo Mueble-Danona, Ceracasa, González Herederos y Pacas Deco.

## **El proyecto Housgai, para el ensayo de nuevos modelos de atención que permitan a las personas envejecer en su propio domicilio, culmina con éxito**

- Housgai ha demostrado ajustarse a las expectativas y necesidades de las personas mayores en situación de fragilidad, proporcionándoles una mayor autonomía para que puedan vivir más tiempo y con una mejor calidad de vida en su propio domicilio
- La novedad de este proyecto radica en que por primera vez confluyen diversas actuaciones: rehabilitación y adaptación de la vivienda, integración de servicios asistenciales, tanto tecnológicos como no tecnológicos, todo ello bajo la perspectiva de un modelo de atención integral a la persona.
- En este proyecto de investigación, financiado por el programa Etorgai de Gobierno Vasco, ha intervenido un consorcio de 14 empresas, universidades, centros tecnológicos y de investigación, liderado por Matia Fundazioa.

*(Donostia-San Sebastián, 9 de septiembre de 2013).* ¿Cómo desean vivir las personas mayores? Los diferentes estudios realizados en este ámbito indican que mayoritariamente prefieren seguir viviendo en su casa y en su entorno habitual. El proyecto Housgai, financiado por el Gobierno Vasco, en el marco del Programa Etorgai desarrollado por un consorcio de 14 empresas, universidades, centros tecnológicos y de investigación, liderado por Matia Fundazioa, ha permitido realizar una evaluación minuciosa y progresiva de todos los servicios y actuaciones que se han realizado a lo largo del proyecto. Housgai ha contado con una fase evaluación en laboratorio y otra en domicilios supervisados, que ha culminado con una última fase de pruebas en un domicilio real que ha permitido extraer conclusiones objetivas para posteriormente realizar recomendaciones para la elaboración de políticas públicas acordes a la coyuntura socio-económica actual. En el marco de Housgai se han ensayado nuevos modelos de atención socio-sanitario que permiten a las personas mayores envejecer en su propio domicilio integrando aspectos de asistencia socio-sanitaria, rehabilitación y

adecuación del entorno y la integración de servicios ya existentes y nuevos servicios. Este enfoque multidisciplinar supone una de las principales novedades del proyecto.

### **El proyecto piloto: características y servicios**

Una mujer de 75 años seleccionada para el proyecto entró a vivir en una vivienda piloto después de que se le realizara una valoración integral para conocer su situación de partida en su propio domicilio. Posteriormente se han realizado dos nuevas valoraciones, una al cabo de dos semanas y la otra a los tres meses de que la persona mayor habitara el nuevo domicilio.

Las intervenciones en la vivienda piloto de Sestao se han realizado tanto en el domicilio como en el entorno, comenzando por la eliminación de las barreras arquitectónicas de acceso al edificio.

En el interior, la vivienda se ha reformado para facilitar su uso por personas mayores con diferentes necesidades en cuanto a movilidad, seguridad y control, entre otros.

El piso está equipado con diferentes servicios de base tecnológica como el servicio para el control de parámetros fisiológicos (peso, tensión, glucosa), el servicio de programación de dietas saludables, el servicio de seguimiento de hábitos de comportamiento, y el servicio de vigilancia en el hogar para la prevención de accidentes.

En el ámbito de los servicios no tecnológicos, cabe destacar la valoración integral a la que ya se ha hecho referencia, a partir de la cual, tomando como base los gustos y las preferencias de la persona mayor, se acordaron junto a ésta los servicios que iba a percibir. Entre estos servicios se pueden encontrar algunos novedosos como la promoción de hábitos saludables el seguimiento de hábitos,



formación en el uso de nuevas tecnologías, apoyo técnico, servicio de asistencia de 24 horas, etc., además de la integración de otros servicios ya existentes, como es el caso de la ayuda domiciliaria.

### **Beneficios evaluados y comprobados**

Gracias a la readecuación de la vivienda, la persona mayor ha presentado posterior al ingreso en el domicilio de Housgai un aumento en la valoración de su capacidad funcional, confirmando la hipótesis de que en muchas ocasiones es el propio entorno el que nos limita y nos vuelve dependientes. Asimismo, su nivel de satisfacción con los servicios de base tecnológica es alto y considera que en general estos sistemas contribuyen tanto a su propia tranquilidad como a la promoción de su salud y su autonomía.

La persona mayor ha valorado también de manera muy positiva el seguimiento de parámetros fisiológicos, seguimiento nutricional, de sus hábitos de comportamiento, conducta y de la seguridad en el hogar que se ha realizado a través de los profesionales y gracias a los servicios tecnológicos. Considera que de esta manera su salud está controlada, se siente tranquila porque sabe que su casa se encuentra en perfectas condiciones y gracias a la combinación de todas las acciones que se han llevado a cabo en Housgai es más autónoma que antes permitiéndole vivir en su domicilio con una supervisión mínima durante mucho tiempo.

La asistente personal que le ha acompañado dos días a la semana ha supuesto un apoyo importante para la persona mayor, ya que le ha proporcionado apoyo en aquellas actividades en las que presenta dificultad y ha potenciado las capacidades con las que la persona mayor cuenta con objeto de que las preserve el mayor tiempo posible.

Con respecto a la cuidadora principal, los resultados obtenidos han sido muy satisfactorios. Además de cumplir con sus expectativas y cubrir sus necesidades, la cuidadora principal, en este caso la hija, afirma estar mucho más tranquila. Los dispositivos tecnológicos le permiten conocer el estado de la vivienda de su madre y saber si alguna alarma de seguridad se está produciendo. Además, el



seguimiento médico de los parámetros fisiológicos le proporciona mucha tranquilidad en cuanto al bienestar físico de su madre. Derivado del Modelo, el índice de sobrecarga producido por el cuidado que presentaba la hija ha disminuido, pasando de estar en un nivel elevado de sobrecarga a un nivel de sobrecarga leve.

Finalmente, los profesionales de la salud involucrados han expresado su rápido aprendizaje de los dispositivos tecnológicos y en general consideran que todas las acciones llevadas a cabo en el marco de Housgai constituyen un hito importante en la manera en la que se les cuida a las personas mayores, y creen que el impacto del modelo en la salud, autonomía y calidad de vida de las personas mayores es muy positivo.

**Más información en You Tube:**

<http://www.youtube.com/watch?v=7W7QbRpxQfs>

**Entidades participantes en el proyecto:**

**Líder:**

Matia Fundazioa

**Empresas:**

Sukia, Tesa, Logos, Sellex, Teusa, Fagor electrodomésticos, Euskaltel, Ibermática, Ikusi, Andago, Etxekide, Aurrerantz, Matia innova

**Centros de investigación:**

Tecnalia, UPV/EHU Facultad de Arquitectura, CEIT IK4, Ikerlan IK4, Mondragon Unibertsitatea, Tekniker IK4, i3B, Matia instituto gerontológico.

**Otros colaboradores:**

Ayuntamiento de Sestao - Sestao Berri, Fagor Grupo Mueble-Danona, Ceracasa, González Herederos y Pacas Deco.